



JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA
Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazioako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS
Viceconsejería de Justicia
Dirección de la Administración de Justicia

Ebazpena, Justizia Administrazioako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita hutsik dauden lanpostuen eta borondatezko berrantolaketa-prozesuan parte hartzera deitutako pertsonen zerrenda, Justizia Administrazioako kidego orokorretako funtzionarioak Eibarko barruti judizialeko Bulego Judizialeko, udalerriko Justizia-Bulegoetako nahiz horien elkarreketako eta Erregistro Zibilaren bulego orokorreko lanpostu berrietara egokitzeko prozesuaren baitan

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2026ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Eibarko, Donostiako, Vitoria-Gasteizko eta Barakaldoko barruti judizialeko funtzionarioak adskribatzeko irizpideak eta egokitze-prozesuaren garapena ere bai.

Ebazpen horren 6. artikuluan ezartzen denez, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak borondatezko berrantolaketa-prozesuan parte hartzera deitutakoen zerrenda argitaratuko du, bai eta eskainiko diren plaza hutsak ere, EIZU justiziako langileen atarian eta Intranet justizia.eus-en.

Artikulu horrek aurreikusten duenez, borondatezko berrantolaketan, prozesu honetan beren borondatez parte hartzen duten langileek aurreko faseetan hutsik geratutako lanpostu guztiak eskuratu ahal izango dituzte.

Esleipenean, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

1. Lehentasuna. Zerbitzu Erkide Orokorreko Betearazpen Atalean behin betiko destinoa duten langileak.
2. Lehentasuna. Aurreko faseetan destinoa lortzerik izan ez duten langileak.
 - a. Berariazko lehiaketan parte hartu bai, baina esleipendun izan ez diren langileak.
 - b. Borondatezko berrespenaren multzokoak izaterik bazuten ere, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik berrespen-fasean lanposturik eskaini ez zaien langileak.
3. Lehentasuna. Udalerrian behin betiko destinoa duten gainerako langileak.

Horiek horrela, honako hau,

EBATZI DUT

1. Artikulua.- Eibarko barruti judizialeko egokitze-prozesuaren barruan langileak borondatez berrantolatze prozesuan parte hartzera deitutako karrerako funtzionarioen zerrenda argitaratzea.

Era berean, Eibarko barruti judizialeko egokitze-prozesuaren barruan langileak borondatez berrantolatze prozesuan eskaintzen diren plazen zerrenda argitaratu da.

Pertsonen zerrenda I. eranskinean dago.

Plazen zerrenda II. eranskinean dago.

2. Artikulua.- Funtzionarioek uztailaren 25etik 29ra, biak barne, egin beharko dute plaza-eskaera, jarraian adierazten den estekan:

<https://www.euskadi.eus/langile-hornikuntza/2026/1/berrantolaketa/web01-a2justic/eu/>





**JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA**

Justizia Sailburuordetza

Justizia Administrazioako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS**

Viceconsejería de Justicia

Dirección de la Administración de Justicia

Fase honetan parte hartzeko eskaerarik aurkezten ez duten langileak nahitaezko berresleipenera igaroko dira.

3. Artikulua.- Aipatutako epe horretan, borondatezko berrantolaketa-prozesuan parte hartzera deitutako pertsonen zerrendan dauden funtzionarioek alegazioak egin ahal izango dituzte, baldin eta, eskaera egitean, ezin badute plazarik eskuratu eskatutako baldintzak betetzen ez dituztelako. Alegazioak aurreko artikuluan adierazitako estekaren bidez aurkeztu beharko dira.

Azken xedapen bakarra.- Ebazpen hau izapide-egintza da, ez du gaiaren mamiari buruzko erabakirik hartzen, eta ez dio amaiera ematen prozedurari.

Ondorioz, ezin da horren aurkako errekurtsorik jarri, Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA